Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko martxoaren 22a, osteguna — 58 — Jueves, a 22 de marzo de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LASARTE-ORIAKO UDALA

*Iragarkia*

Udal honetako Osoko Batzarrak, 2018ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran, ondoko hau erabaki zuen:

*Lehena.* Euskara saileko diru-laguntzak arautzeko oinarriak onestea.

*Bigarrena.* Euskara saileko diru-laguntzak arautzeko oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Lasarte-Oria, 2018ko martxoaren 16a.—Jesús Zaballos de Llanos, alkatea. (2010)

*Euskara saileko diru-laguntzak arautzeko oinarriak.*

*1. Xedea.*

Laguntza-oinarri honen xedea da Lasarte-Oriako herritarrek eta erakundeek euskarazko gaitasuna hobetzeko eta euskara gehiago erabiltzeko neurriak garatzea. Zehazkiago, Udalbatzarrak, 2001eko urriaren 31n eginiko osoko bilkuran, behin betikotzat onetsi zuen «Lasarte-Oria herrian eta udalean euskararen erabilpena normalizatzeko arauei buruzko udal-ordenantzak» 14. artikuluan dioena eta Udalbatzarrak, 2013ko abenduaren 20an eginiko osoko bilkuran ordenantza horren 15. artikulua aldatu ondoren dioena betetzea. Laguntza hauek norgehiagokakoa ez den erregimenean emango dira. Diru-laguntzak emateko Lasarte-Oriako Udalaren oinarri orokorretan ezarritakoa jarraituko da.

*2. Onuradunak.*

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira Lasarte-Oriako udal-barrutian euskara-gaitasuna hobetzeko edota euskararen erabilera indartzeko neurriak hartu dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

Diru-laguntza hauen onuradun izateko ez dago Lasarte-Oriako Udaleko diru-laguntza eskatzaileen erregistroan inskribatuta egon beharrik.

*3. Eremuak.*

Diruz lagunduko dena ondoren xedatzen diren eremuetako eskaerak izango dira, betiere diru-laguntzak emateko oinarri orokorrean eta oinarri honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte. Hauek dira diru-laguntzaren eremuak:

a) Euskara ikasteko bekak.

b) Udako unibertsitateetako euskarazko ikastaroetarako bekak.

c) Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluak euskaraz ateratzeko ikastaroetarako bekak.

d) Autoeskoletan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzea saritzeko bekak.

e) Enpresetako eta elkarteetako jarduera puntualak euskalduntzeko diru-laguntzak.

## AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

*Anuncio*

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 13 de marzo de 2018, tomó el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar las bases que regulan las subvenciones del Departamento de Euskera.

*Segundo.* Publicar en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa las bases que regulan las subvenciones del Departamento de Euskera.

Lasarte-Oria, a 16 de marzo de 2018.—El alcalde, Jesús Zaballos de Llanos. (2010)

*Bases reguladoras de las subvenciones del área de euskera.*

*1. Objeto.*

El objeto de estas bases de subvenciones es desarrollar medidas para mejorar la capacitación en euskera e incrementar el uso del euskera por parte de los ciudadanos y de las ciudadanas y los organismos de Lasarte-Oria. Concretamente, dar cumplimiento al artículo 14 de la «Ordenanza municipal para la normalización del uso del euskera en el municipio y ayuntamiento de Lasarte-Oria» aprobada definitivamente por el pleno municipal en sesión celebrada el 31 de octubre de 2001 y al artículo 15 de la misma ordenanza modificada por el pleno municipal en sesión celebrada el 20 de diciembre de 2013. Estas ayudas se concederán en régimen de no concurrencia competitiva. Las subvenciones se concederán aplicando lo establecido en las bases generales del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

*2. Beneficiarios.*

Podrán ser beneficiarios/as de estas subvenciones las personas físicas o jurídicas privadas que hayan adoptado medidas para mejorar la capacitación en euskera o reforzar el uso del euskera en el término municipal de Lasarte-Oria.

Para ser beneficiario/a de estas subvenciones no es preciso estar inscrito/a en el registro de solicitantes de subvención del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

*3. Ámbitos.*

Serán objeto de subvención las solicitudes de los ámbitos que se disponen a continuación, siempre que cumplan las condiciones establecidas en la base general para la concesión de subvenciones y en esta base. Éstos son los ámbitos objeto de subvención:

a) Becas para aprender euskera.

b) Becas para cursos en euskera de las universidades de verano.

c) Becas para cursos para obtener los títulos de monitor/a y de director/a de tiempo libre.

d) Becas para premiar la obtención en euskera del apartado teórico del permiso de conducir en las autoescuelas.

e) Subvenciones para euskaldunizar las actividades puntuales de las empresas y asociaciones.

ESKUa2fd3538-4dd5-4ff5-8d31-b41501e43175
EK\CV GAO-I-2018-02010

f) Hamar langile baino gehiagoko enpresetako jarduerak euskalduntzeko Baietz Gurean! programako diru-laguntzak.

*4. Baztertzekoak.*

Oinarri hauen aplikazio-esparrutik kanpo geratuko dira beren izaeragatik edo xedeagatik diruz laguntzekoak diren eremuetako ezeinekin zuzenean zerikusirik ez duten eskaerak.

*5. Bete beharreko baldintzak.*

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun izateko, eskatzaileak, oinarri orokorrak adierazten dituen baldintzaz gain ondoko hauek ere bete beharko ditu:

Kasu guztietan:

— Baldin eta beste administrazio edo entitate batzuetatik –publikoak nahiz pribatuak, estatukoak nahiz nazioartekoak– helburu bererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, organo laguntza-emaileari horren berri ematea.

— Diru-laguntza ematea ebazteko proposamena egin aurretik, Udalarekin zorretan ez egotea. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

a) Euskara ikasteko bekak:

— Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

— 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.

— Ikasketa ofizial edo homologaturik eskaintzen duen euskaltegiren batean ikastaro hauetakoren bat egina izatea, gutxienez % 85eko asistentziarekin eta gutxieneko aprobetxamendua gaindituarekin:

1. Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.

2. Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.

3. Udako ikastaroak (euskaltegian bertan edo barnetegietan). Ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik subentzionatuko dira, betiere bekak jasotzeko baldintzak betetzen badituzte.

— Ikastaro bat diruz laguntzerakoan, matrikula ordaintzen den unetik hasiko da asistentzia kontatzen. Ikastaroa amaitu baino lehenago uzten dutenek ez dute diru-laguntzarik jasotzeko aukerarik izango.

b) Udako unibertsitateetako euskarazko ikastaroetarako:

— Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

— Udako unibertsitate mailako ikastaro bat euskaraz jasotzea.

— Unibertsitateko ikaslea, langabetua edo erretiratua izatea.

c) Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluak ateratzeko ikastaroetarako:

— Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

— Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua.

— Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea.

d) Autoeskoletan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzea saritzeko:

— Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

f) Subvenciones del programa Baietz Gurean! para euskaldunizar las actividades de las empresas de más de diez trabajadores/as.

*4. Exclusiones.*

Quedarán fuera del ámbito de aplicación de estas bases aquellas solicitudes que, por su naturaleza u objeto, no tengan una relación directa con ninguno de los ámbitos objeto de subvención.

*5. Requisitos a cumplir.*

Para ser beneficiario/a de las subvenciones reguladas en las presentes bases, el/la solicitante deberá de cumplir, además de las condiciones señaladas en la base general, lo siguiente:

En todos los casos:

— Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.

— No ser deudor/a del Ayuntamiento antes de formular la propuesta para resolver la concesión de la subvención. Este requisito será comprobado por el propio Ayuntamiento.

a) Becas para aprender euskera:

— Estar empadronado/a en Lasarte-Oria desde un día antes del inicio del curso y hasta su finalización. Este requisito será comprobado por el propio Ayuntamiento.

— Tener cumplidos los 16 años el día que finaliza el curso.

— Haber cursado alguno de estos cursos en algún euskaltegi que ofrezca estudios oficiales u homologados, con una asistencia mínima del 85 % y superando un mínimo de aprovechamiento.

1. Curso del euskaltegi a lo largo del curso, de un mínimo de 80 horas.

2. Internado de un mínimo de un mes seguido.

3. Cursos de verano (en el propio euskaltegi o en internado). Se subvencionarán únicamente en el caso de alumnos/as que, cumpliendo los requisitos para percibir la subvención, hayan realizado alguno de los anteriores tipos de cursos a lo largo del curso.

— Al subvencionar un curso, la asistencia comenzará a computar desde el momento en que se abona la matrícula. Quienes abandonen el curso antes de su finalización no podrán optar a la subvención.

b) Para cursos en euskera de las universidades de verano:

— Estar empadronado/a en Lasarte-Oria desde un día antes del inicio del curso y hasta su finalización. Este requisito será comprobado por el propio Ayuntamiento.

— Cursar en euskera un curso universitario de verano.

— Ser estudiante universitario/a, estar en paro o estar jubilado/a.

c) Para cursos para obtener los títulos de monitor/a y de director/a de tiempo libre:

— Estar empadronado/a en Lasarte-Oria desde un día antes del inicio del curso y hasta su finalización. Este requisito será comprobado por el propio Ayuntamiento.

— Que el curso sea en euskera y homologado por el Gobierno Vasco.

— Aprobar el apartado teórico del curso.

d) Para premiar la obtención en euskera del apartado teórico del permiso de conducir en las autoescuelas:

— Estar empadronado/a en Lasarte-Oria desde un día antes del inicio del curso y hasta su finalización. Este requisito será comprobado por el propio Ayuntamiento.

ESKUa2fd3538-4dd5-4ff5-8d31-b41501e43175

EK\CV GAO-I-2018-02010

— Herriko autoeskola batean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditzea.

— Udalak zozketa bidez banatuko ditu sariak.

e) Enpresetako eta elkarteetako jarduera puntualak euskalduntzeko:

— Elkartearen edo enpresaren egoitza soziala herrian izatea.

— Enpresaren kasuan, jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

— Errotuluen kasuan, soilik izen propioa ez izatea.

— Euskaraz gain beste hizkuntza batzuk erabiltzen direnean, euskarari lehentasuna ematea.

— Euskaraz zuzen idatziak egotea.

— Euskara zerbitzuaren oniritzia izatea, egin aurretik.

f) Hamar langile baino gehiagoko enpresetako jarduerak euskalduntzeko Baietz Gurean! programako diru-laguntzak:

— Enpresaren egoitza soziala herrian izatea.

— Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea.

— Udalarekin elkarlanerako hitzarmena sinatzea.

*6. Aurkeztu beharreko dokumentuak.*

Diru-laguntza jasotzeko ondoren zehazten den dokumentazioa aurkeztu behar da:

Kasu guztietan:

— Eskaera.

— Nortasun agiriaren fotokopia pertsona fisikoei zuzendutako laguntzetan eta Identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia pertsona juridikoen kasuan.

— Deklarazio bat adieraziz ez duela diru-laguntza publikoaren onuradun izateko inolako debekurik, Lasarte-Oriako Udalaren Diru-Laguntzak Emateko Ordenantza Arautzaileak 5. artikuluan ezartzen dituen debeku-kausen arabera.

— Eskatzaileak Udalaz kanpoko diru-laguntzaren bat jaso badu, hori kreditutako duen agiria aurkeztu beharko du. Udalaren diru-laguntza, Udalaz kanpo jasotakoaren eta udal ordenantzaren arabera dagokionaren arteko diferentzia izango da.

— Eskatzaileak Udalaz kanpoko diru-laguntzarik jaso ez badu, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du.

a) Euskara ikasteko bekak:

— Matrikularen ordainagiria.

— Asistentziaren eta gutxieneko aprobetxamenduaren baldintza betetzen duen ziurtagiria, euskaltegiko zuzendariak sinatua.

b) Udako unibertsitateetako euskarazko ikastaroetarako:

— Matrikularen ordainagiria.

— Unibertsitateko ikaslea, langabetua edo erretiratua dela ziurtatzen duen agiria.

c) Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluak ateratzeko ikastaroetarako:

— Matrikularen ordainagiria.

— Atal teorikoa amaitutakoan, atal hori gainditu izanaren agiria (aisialdi-eskolak egina).

— Superar en una autoescuela del municipio el apartado teórico del permiso de conducir.

— El Ayuntamiento repartirá los premios mediante sorteo.

e) Para euskaldunizar las actividades puntuales de las empresas y asociaciones:

— Que la razón social de la asociación o empresa se encuentre en la localidad.

— En el caso de las empresas, estar dada de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas. Este requisito será comprobado por el propio Ayuntamiento.

— En el caso de rótulos, que no se trate únicamente de un nombre propio.

— Cuando además del euskera se utilicen otros idiomas, que se priorice el euskera.

— Que estén correctamente escritos en euskera.

— Obtener el visto bueno del Servicio de Euskera antes de su elaboración.

f) Para el programa Baietz Gurean! Para euskaldunizar las actividades de las empresas de más de diez trabajadores/as:

— Que la razón social de la empresa se encuentre en la localidad.

— Estar dada de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

— Suscribir un convenio de colaboración con el Ayuntamiento.

*6. Documentación a presentar.*

Para percibir la subvención, hay que presentar la documentación que se especifica a continuación:

En todos los casos:

— Solicitud.

— Fotocopia del documento de identidad en las ayudas dirigidas a personas físicas y fotocopia del Código de Identificación Fiscal en el caso de personas jurídicas.

— Declaración de no estar incurso/a en ninguna de las causas de prohibición para obtener la condición de beneficiario/a de subvención pública, establecidas en el articulo 5 de la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

— Si el/la solicitante ha recibido una subvención extramunicipal, deberá presentar el documento que lo acredite. En ese caso, la subvención municipal será la diferencia entre lo recibido desde otra instancia y lo que le corresponde según la ordenanza municipal.

— En caso de que el/la solicitante no haya recibido ninguna subvención extramunicipal, deberá presentar una declaración jurada.

a) Becas para aprender euskera:

— Recibo de la matrícula.

— Certificado de que cumple los requisitos de asistencia y aprovechamiento, firmado por el director del euskaltegi.

b) Para cursos en euskera de las universidades de verano:

— Recibo de la matrícula.

— Documento que acredite que está en paro, es estudiante universitario/a o está jubilado/a.

c) Para cursos para obtener los títulos de monitor/a y de director/a de tiempo libre:

— Recibo de la matrícula.

— Al finalizar el apartado teórico, acreditación de haber aprobado dicho apartado, emitida por la escuela de tiempo libre.

ESKUa2fd3538-4dd5-4ff5-8d31-b41501e43175

d) Autoeskoletan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzea saritzeko:

— Matrikularen ordainagiria.

— Atal teorikoa gainditu izanaren agiria.

e) Elkarteetako eta enpresetako jarduera puntualak euskalduntzeko:

— Gastuaren justifikazioa.

— Diruz laguntzekoa dena egin izanaren froga (errotuluaren argazkia, webaren helbidea...).

f) Hamar langile baino gehiagoko enpresetako jarduerak euskalduntzeko:

— Ez da beste dokumentaziorik behar.

*7. Diru laguntzaren zenbatekoa.*

Diru-laguntza horiek Udalean indarrean dagoen aurrekontuetako kontu-sailetatik eta dagokion urtean erabakitako gehienezko diru-kopuruekin egongo dira hornituta:

— 1 0600.480.01.355.10 kontu-saila, beketarako («a», «b», «c» eta «d» xedeetako deialdientzat) erabiliko da.

— 1 0600.481.01.335.10 kontu-sailetik, pertsona juridikoen jarduerak euskalduntzeko diru-laguntzetarako («e» eta «f» xedeetako deialdientzat) erabiliko da.

*8. Diru laguntzaren mugak.*

Diru laguntza bakoitzaren banakako zenbatekoak ezingo du gainditu eskatzaileak eskatutako kopurua.

Kontu-sail bakoitzean helburu horietarako zehaztutako diru-kopuru horiek amaitzen direnean ezin izango dira diru-laguntza gehiago eman. Edozein kasutan, Udalak xede bererako diru-kopuru berri batzuk onetsi ahal izango ditu.

Atal bakoitzeko diru-kopurua agortzen ez bada, beste atal batean erabili ahal izango da. Horretarako, atal bakoitzean soberan geratutako kopurua diru-kopurua agortuta geratu den kontu-sail bereko gainontzeko ataletan hainbanatuko da. Operazio hori errepikatuko da kontu-sail bereko atal guztiak, edo gehienez bakarra, soberakinik gabe geratu arte. Kontu-sail baten barruko atal guztietako diru-laguntzak banatu ondoren, kontu-sail horretan soberakina geratuko balitz, soberakin hori beste kontu-sailera pasatu ahal izango litzateke, bigarren kontu-sail horretako agortutako ataletan diru-laguntza hainbanatuz, arestian zehaztu den banaketa-modua errepikatuz.

*9. Eskabideak eta epeak.*

a) Euskara ikasteko bekak:

Urtero, aurreko urteko irailaren 1a eta urte horretako abuztuaren 31 bitartean hasi eta bukatutako ikastaroak lagunduko dira. Udarako ikastaro eta barnetegien kasuan, abuztuaren 31 baino lehenago hasi bai, baina bukatzen ez diren ikastaroak ere lagundu ahal izango dira.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

b) Udako unibertsitateetako euskarazko ikastaroetarako:

Indarrean dagoen urteko uda-ikastaroetan egindako ikastaroak lagunduko dira diruz.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera. Beranduenez urriaren 31n.

c) Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluak ateratzeko ikastaroetarako:

Urtero, aurreko urteko irailaren 1a eta urte horretako abuztuaren 31 bitartean hasi eta bukatutako ikastaroak lagunduko dira.

d) Para premiar la obtención en euskera del apartado teórico del permiso de conducir en las autoescuelas:

— Recibo de la matrícula.

— Acreditación de haber aprobado el apartado teórico.

e) Para euskaldunizar las actividades puntuales de las asociaciones y de las empresas:

— Justificación del gasto.

— Prueba que acredite que se ha realizado el objeto de la subvención (foto del rótulo, dirección de la web...).

f) Para el programa Baietz Gurean! Para euskaldunizar las actividades de las empresas de más de diez trabajadores/as:

— No se precisa más documentación.

*7. Importe de la subvención.*

Estas subvenciones estarán dotadas con las cantidades máximas establecidas para el correspondiente ejercicio, de las siguientes partidas del presupuesto municipal vigente:

— La partida 1 0600.480.01.335.10 se destinará a becas (para las convocatorias de los apartados «a», «b», «c» y «d»).

— La partida 1 0600.481.01.335.10 se destinará a las subvenciones para euskaldunizar las actividades de las personas jurídicas (convocatorias de los apartados «e» y «f»).

*8. Límites de la subvención.*

La cuantía individualizada de cada subvención no podrá superar la cantidad solicitada por el solicitante.

Cuando se agoten las cantidades especificadas para esos objetivos en dichas partidas, no se podrán conceder más subvenciones. En cualquier caso, el Ayuntamiento podrá aprobar nuevas cantidades para el mismo fin.

Si no se agota la cantidad de cada apartado, podrá utilizarse en otro apartado. A tal efecto, la cantidad excedente de cada apartado se prorrateará en el resto de apartados de la misma partida a la que se le haya agotado la dotación. Esta operación se repetirá hasta que todos los apartados de la misma partida, o a lo sumo uno, queden sin remanentes. En caso de que, una vez repartidas las subvenciones de todos los apartados incluidos en una partida, quedara un remanente en dicha partida, dicho remanente podría transferirse a otra partida, prorrateando la subvención en los apartados agotados de esta segunda partida, repitiendo la forma de reparto especificada anteriormente.

*9. Solicitudes y plazos.*

a) Becas para aprender euskera:

Anualmente, se subvencionarán los cursos iniciados y finalizados entre el 1 de septiembre del año anterior y el 31 de agosto de ese año. En el caso de cursos y barnetegis de verano, se podrán subvencionar aquellos cursos que habiendo empezado antes del 31 de agosto, no hayan finalizado para esa fecha.

El interesado deberá presentar la solicitud dentro de los quince días siguientes a la finalización del correspondiente curso.

b) Para cursos en euskera de las universidades de verano:

Se subvencionarán los cursos de verano realizados el año en curso.

El interesado deberá presentar la solicitud dentro de los quince días siguientes a la finalización del correspondiente curso. Como muy tarde, el 31 de octubre.

c) Para cursos para obtener los títulos de monitor y de director de tiempo libre:

Anualmente, se subvencionarán los cursos iniciados y finalizados entre el 1 de septiembre del año anterior y el 31 de agosto de ese año.

ESKUa2fd3538-4dd5-4ff5-8d31-b41501e43175
EK\CV GAO-I-2018-02010

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera. Beranduenez urriaren 31n.

d) Autoeskoletan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzea saritzeko:

Urtero, aurreko urtean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera duten pertsonek izango dute sariketan parte hartzeko aukera. Sarituak izateko hautagaien zerrenda Lasarte-Oriako autoeskolek emango diete Udalari, Udalak egingo du zozketa eta saritutakoek gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz aterea dutela autoeskolek ziurtatuko dute Trafikoko zuzendaritzara aurkeztutako eskaeraren eta hark, edo haren faltan autoeskolak berak egindako egiaztagiriaren bidez.

e) Enpresetako eta elkarteetako jarduera puntualak euskalduntzeko:

Aurreko urteko azaroaren 1etik indarrean dagoen urteko urriaren 31 bitartean egindako jarduerak lagunduko dira.

Eskaera epe horretan zehar egin ahal izango da, beranduenez urriaren 31n.

f) Hamar langile baino gehiagoko enpresetako jarduerak euskalduntzeko Baietz Gurean! programa:

Udalarekin sinatutako hitzarmenean zehazten den denbora tartean zehar egindako jarduerak lagunduko dira. Hitzarmenean ezarritako prozeduraren arabera bideratuko da dirulaguntza.

*10. Laguntza bakoitzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak.*

a) Euskara ikasteko bekak.

Diru-laguntza matrikularen % 85 artekoa izango da.

— Herriko euskaltegietatik kanpoko euskaltegietan egindako ikastaroei dagokienez, diruz lagundutako ikastaroetako matrikulak inoiz ez dira izango Lasarte-Oriako Udalak ordenantza fiskaletan udal euskaltegiko orduko prezio publikoetan ezarritako kopurua + % 10 baino handiagoak. Ordaindutako matrikulak kopuru hori baino handiagokoak balira, muga horretaraino bakarrik ordainduko ditu Udalak (dagokion subentzioaren ehunekoa aplikatuz). Kalkulu horretarako oinarrizko orduko preziotzat honako hauek hartuko dira:

* Ikastaro presentzialen kasuan, astean 10 orduko ikastaroaren prezio unitarioa.

* Ikastaro ez presentzialen kasuan (autoikaskuntza, online...), 190 orduko ikastaroaren prezio unitarioa.

— Barnetegiak izango dira aurreko arauaren salbuespen. Kasu horretan, eskolei dagozkien matrikulak, osorik, izango dira subentzionagai (dagokion subentzioaren ehunekoa aplikatuz). Ostatu-gastuak ez dira diruz lagunduko.

b) Udako unibertsitateetako euskarazko ikastaroetarako bekak.

Matrikularen % 50 arteko diru-laguntza. Bekak soilik matrikulako gastuak estaliko ditu, egoitza, garraio eta antzerako gastuak ez ditu estaliko.

c) Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluak ateratzeko ikastaroetarako bekak.

Begirale ikastaroa: matrikularen % 50 arte (250 euro gehienez).

Zuzendari ikastaroa: matrikularen % 50 arte (150 euro gehienez).

d) Autoeskoletan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzea saritzeko.

Gidabaimenaren atal teorikoaren matrikularen kostua, gehienez 400 €.

El interesado deberá presentar la solicitud dentro de los quince días siguientes a la finalización del correspondiente curso. Como muy tarde, el 31 de octubre.

d) Para premiar la obtención en euskera del apartado teórico del permiso de conducir en las autoescuelas:

Anualmente, podrán participar en el sorteo aquellas personas que el año anterior hayan obtenido en euskera el apartado teórico del permiso de conducir. La relación de los candidatos a ser premiados será facilitada al Ayuntamiento por las autoescuelas de Lasarte-Oria, el sorteo lo realizará el Ayuntamiento y serán las autoescuelas quienes certifiquen que los premiados han obtenido el apartado teórico del permiso de conducir, mediante una solicitud presentada ante la Dirección de Tráfico y un certificado emitido por ella, o en su defecto por la autoescuela.

e) Para euskaldunizar las actividades puntuales de las asociaciones y de las empresas:

Se subvencionarán las actividades realizadas entre el 1 de noviembre del año anterior y el 31 de octubre del ejercicio vigente.

La solicitud podrá formularse a lo largo del año, con fecha tope el 31 de octubre.

f) Para euskaldunizar las actividades de las empresas de más de diez trabajadores:

Se subvencionarán las actividades realizadas a lo largo del período especificado en el convenio firmado con el Ayuntamiento. La subvención se tramitará conforme al procedimiento establecido en el convenio.

*10. Criterios para determinar la cuantía de cada ayuda.*

a) Becas para aprender euskera.

La subvención será de hasta el 85 % de la matrícula.

— En cuanto a los cursos realizados en otros euskaltegis que no sean los del municipio, las matrículas de los cursos subvencionados nunca superarán el precio por hora establecido para el euskaltegi municipal en las ordenanzas fiscales del Ayuntamiento de Lasarte-Oria más un 10 %. En caso de que la matrícula abonada supere dicha cantidad, el Ayuntamiento sólo pagará hasta dicho límite, aplicando el porcentaje de la subvención correspondiente. Para dicho cálculo, se tomarán como precios por hora básicos los siguientes:

* En el caso de los cursos presenciales, el precio unitario del curso de 10 horas semanales.

* En el caso de los cursos no presenciales, (autoaprendizaje, on-line...), el precio unitario del curso de 190 horas.

— Los internados serán una excepción de la norma anterior. En tal caso, serán objeto de subvención la totalidad de las matrículas correspondientes a las clases (aplicando el porcentaje de la correspondiente subvención). Los gastos de alojamiento no serán subvencionados.

b) Becas para cursos en euskera de las universidades de verano.

Subvención de hasta el 50 % de la matrícula. La beca únicamente cubrirá los gastos de matrícula, no así los gastos de alojamiento, transporte y similares.

c) Becas para cursos para obtener los títulos de monitor/a y de director/a de tiempo libre.

Curso de monitor/a: hasta el 50 % de la matrícula (máximo 250 euros).

Curso de director/a: hasta el 50 % de la matrícula (máximo 150 euros).

d) Para premiar la obtención en euskera del apartado teórico del permiso de conducir en las autoescuelas.

Coste de la matrícula del apartado teórico del permiso de conducir, máximo 400 €.

ESKUa2fd3538-4dd5-4ff5-8d31-b41501e43175
EK\CV GAO-I-2018-02010

e) Enpresetako eta elkarteetako jarduera puntualak euskalduntzeko.

— Errotuluak (nagusia eta bestelakoak). Kostuaren % 50 (300 € gehienez).

— Irudi korporatiboa. Kostuaren % 50 (200 € gehienez).

— Web-orriak:

* Web-gune osoa euskaraz edo bietara, euskarari lehentasuna emanez. Kostuaren % 50 (gehienez 450 €).

* Web-guneko hasierako orri nagusia eta lehenengo mailako orriak euskaraz edo bietara. Kostuaren % 30 (gehienez 300 €).

— Enpresan euskararen erabilera normalizatzen lagun dezaketen programa informatikoak. Kostuaren % 50 (gehienez 200 €).

— Kanpoko erabilerarako dokumentazioa. Kostuaren % 50 (gehienez 300 €).

Arestian aipatutako kontzeptuengatik, gehienez 500 €-ko laguntza izango du enpresa edo elkarte bakoitzak. Ezingo da kontzeptu beragatik diru-laguntza bat baino gehiago jaso. Udalarekin euskararen erabilera normalizatzeko planak dituzten enpresa edo elkarteen kasuan, gehienezko kopurua. 1.000 €-koa izango da.

f) Hamar langile baino gehiagoko enpresetako jarduerak euskalduntzeko «Baietz gurean» programa.

— Enpresa batek Baietz gurean! egitasmoan parte hartzea erabakitzen duenean, Udalak enpresari neurketa egingo dio Eusko Jaurlaritzak Lanhitz programaren barruan definituta duen Erreferentzia Marko Estandarra (EME) erabiliz eta 100 puntuko tarte batean kokatuko du. Puntu-tartea adierazteaz gain, enpresari proposatuko dio zein neurri har ditzakeen hurrengo puntu-tartera pasatzeko.

— Enpresak Baietz gurean! egitasmoan parte hartzea erabakitzen duenean, urte bateko iraupena izango duen elkarlanerako hitzarmena sinatuko du udalarekin, eta puntu-tarte batetik besterako jauzia izango da diruz lagunduko dena. Jauzi hori Udalak 1. neurketatik urtebeteko epean egingo duen bigarren neurketa baten bidez zehaztuko da.

* 0-100 puntu-tartetik 101-200 puntu tartera pasaz gero, 700 €.

* 101-200 puntu-tartetik 201-300 puntu tartera pasaz gero, 700 €.

* 201-300 puntu-tartetik 301-400 puntu tartera pasaz gero, 700 €.

* 301-400 puntu-tartetik 401-500 puntu tartera pasaz gero, 700 €.

* 401-500 puntu-tartetik 501-600 puntu tartera pasaz gero, 500 €.

* 501-600 puntu-tartetik 601-700 puntu tartera pasaz gero, 500 €.

* 601-700 puntu-tartetik 701-800 puntu tartera pasaz gero, 500 €.

* 701-800 puntu-tartetik 801-900 puntu tartera pasaz gero, 300 €.

* 801-900 puntu-tartetik 901-1.000 puntu tartera pasaz gero, 300 €.

*11. Diru laguntza ordaintzea.*

a) Euskara ikasteko bekak:

Ekainaren 30a bitartean bukatutako ikastaroei dagozkien diru-laguntzen ordainketak bi zatitan egingo dira. Dagokien diru-laguntzaren % 60ko 1. ordainketa bat egingo da abuztuaren 31 baino lehenago eta, dagokien diru-laguntzaren % 40ko edo,

e) Para euskaldunizar las actividades puntuales de las asociaciones y de las empresas.

Rótulos (principal y otros). 50 % de su coste (máximo 300 €).

Imagen corporativa. 50 % de su coste (máximo 200 €).

Páginas web:

* Totalidad del sitio web en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera. 50 % de su coste (máximo 450 €).

* Página principal inicial y páginas de primer orden del sitio web en euskera o en bilingüe. 30 % de su coste (máximo 300 €).

— Programas informáticos que puedan contribuir a normalizar el uso del euskera en la empresa. 50 % de su coste (máximo 200 €).

— Documentación para uso externo. 50 % de su coste (máximo 300 €).

Cada empresa o asociación percibirá como máximo una ayuda de 500 € por los conceptos anteriormente mencionados. No se podrá percibir más de una subvención por el mismo concepto. En el caso de empresas o asociaciones que tengan con el Ayuntamiento planes de normalización del uso del euskera, la cantidad máxima será de 1.000 €.

f) Para euskaldunizar las actividades de las empresas de más de diez trabajadores del programa «Baietz gurean».

— Cuando una empresa decida participar en el proyecto Baietz gurean!, el Ayuntamiento efectuará una medición a la empresa, utilizando el Marco de Referencia Estándar (MRE) que tiene definido el Gobierno Vasco dentro del programa Lanhitz, y lo situará en un intervalo de 100 puntos. Además de indicar la puntación, propondrá a la empresa qué medidas puede adoptar para pasar al siguiente intervalo de puntos.

— Cuando la empresa decida participar en el proyecto Baietz gurean!, firmará con el Ayuntamiento un convenio de colaboración por un período de un año, y el salto de un tramo de puntos a otro será lo que se subvencione. Dicho salto se determinará mediante una segunda medición que realizará el Ayuntamiento en el plazo de un año desde la primera medición.

* Pasando de un tramo de 0-100 puntos a un tramo de 101-200 puntos, 700 €.

* Pasando de un tramo de 101-200 puntos a un tramo de 201-300 puntos, 700 €.

* Pasando de un tramo de 201-300 puntos a un tramo de 301-400 puntos, 700 €.

* Pasando de un tramo de 301-400 puntos a un tramo de 401-500 puntos, 700 €.

* Pasando de un tramo de 401-500 puntos a un tramo de 501-600 puntos, 500 €.

* Pasando de un tramo de 501-600 puntos a un tramo de 601-700 puntos, 500 €.

* Pasando de un tramo de 601-700 puntos a un tramo de 701-800 puntos, 500 €.

* Pasando de un tramo de 701-800 puntos a un tramo de 801-900 puntos, 300 €.

* Pasando de un tramo de 801-900 puntos a un tramo de 901-1.000 puntos, 300 €.

*11. Pago de la subvención.*

a) Becas para aprender euskera:

Los abonos de las subvenciones correspondientes a los cursos que finalicen hasta el 30 de junio se efectuarán en dos partes. Un primer pago del 60 % de la correspondiente subvención se efectuará antes del 31 de agosto, y se efectuará antes de fin

ESKUa2fd3538-4dd5-4ff5-8d31-b41501e43175
EK\CV GAO-I-2018-02010

horretara iristeko adinako krediturik ez balego dagoen diru-kopurua hainbanatuz, 2. ordainketa egingo da urtea amaitu aurretik.

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean bukatutako ikastaroei dagozkien diru-laguntzen ordainketak berriz, ordainketa bakarrean egingo dira. Ordainketa hori urtea amaitu aurretik egingo da eta % 60koa izango da gutxienez eta % 100ekoa edo horretara iristeko adinako krediturik ez balego dagoen diru-kopurua hainbanatuz gehienez.

b) Udako unibertsitateetako euskarazko ikastaroetarako:

Eskaera guztiak jaso ondoren, baldintzak betetzen dituzten eskaerak ordainketa bakarrean ordainduko dira urtea amaitu aurretik, dagokien diru-laguntzaren % 100 ordainduz edo, horretara iristeko adinako krediturik ez balego, dagoen diru-kopurua hainbanatuz.

c) Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluak ateratzeko ikastaroetarako:

Eskaera guztiak jaso ondoren, baldintzak betetzen dituzten eskaerak ordainketa bakarrean ordainduko dira urtea amaitu aurretik, dagokien diru-laguntzaren % 100 ordainduz edo, horretara iristeko adinako krediturik ez balego, dagoen diru-kopurua hainbanatuz.

d) Autoeskoletan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzea saritzeko:

Eskaera guztiak jaso ondoren, zozketa egingo da baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean eta ordainketa bakarrean ordainduko dira.

e) Enpresetako eta elkarteetako jarduera puntualak euskalduntzeko:

Eskaera guztiak jaso ondoren, baldintzak betetzen dituzten eskaerak ordainketa bakarrean ordainduko dira urtea amaitu aurretik, dagokien diru-laguntzaren % 100 ordainduz edo, horretara iristeko adinako krediturik ez balego, dagoen diru-kopurua hainbanatuz.

f) Hamar langile baino gehiagoko enpresetako jarduerak euskalduntzeko Baietz Gurean! programa:

Udalarekin sinatutako hitzarmenean zehazten den moduan egingo da ordainketa.

*12. Azken xedapena. Lehena.*

*Lehena.* Urtero dagozkion deialdiak onartzeko derrigortasuna utzi gabe, oinarri hauek indarrean jarraituko dute organo eskudunak aldatzen ez dituen bitartean.

*Bigarrena.* Arau honetan ageri diren laguntzen zenbatekoak urtero errebisatuko dira, udal aurrekontuetan onetsitako diru-kopuruen arabera.

*Hirugarrena.* Arau hau aplikatzea urte finantzario bakoitzeko aurrekontuetan beharrezko kreditua jasoko duen kontusaila izateari baldintzatua dago.

*Laugarrena.* Izaera orokorreko arau honetan aurreikusi gabeko guztirako, osagarri gisa aplikatzekoa izango da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzen duen erregelamenduan xedatutakoa, bai halaber erregimen lokalari buruzko estatuko araudiak eta Lasarte-Oriako Udalaren beraren araudiek ezarritakoa.

*Bosgarrena.* Arau honek jasotzen dituen xedapenen artean, badira Udalak eta/edo administrazio publiko batzuek beren eskumenak gauzatuz onetsitakoak, eta zuzenean eta nahitaez aplikatu beharrekoak. Beraz, alderdi horien gainean

de año un segundo abono del 40 % de la correspondiente subvención o, en caso de que no hubiera suficiente crédito para alcanzar dicho importe, de de la cuantía que resulte prorrateando la cantidad restante.

Por su parte, los abonos de las subvenciones correspondientes a los cursos que finalicen entre el 1 de julio y el 31 de agosto se efectuarán en un único pago. Dicho pago se realizará antes de fin de año y será de un mínimo del 60 % y de un máximo del 100 % o, en caso de que no hubiera suficiente crédito para alcanzar dicho importe, de la cuantía que resulte prorrateando la cantidad restante.

b) Para cursos en euskera de las universidades de verano:

Una vez recibidas todas las solicitudes, aquéllas que cumplan todos los requisitos se abonarán en un único pago antes de que finalice el año, abonándose el 100 % de la correspondiente subvención o, en caso de que no hubiera suficiente crédito para alcanzar dicho importe, la cuantía que resulte prorrateando la cantidad restante.

c) Para cursos para obtener los títulos de monitor/a y de director/a de tiempo libre:

Una vez recibidas todas las solicitudes, aquéllas que cumplan todos los requisitos se abonarán en un único pago antes de que finalice el año, abonándose el 100 % de la correspondiente subvención o, en caso de que no hubiera suficiente crédito para alcanzar dicho importe, la cuantía que resulte prorrateando la cantidad restante.

d) Para premiar la obtención en euskera del apartado teórico del permiso de conducir en las autoescuelas:

Una vez recibidas todas las solicitudes, se sorteará entre aquéllas que cumplan todos los requisitos y se abonará en un único pago.

e) Para euskaldunizar las actividades puntuales de las asociaciones y de las empresas:

Una vez recibidas todas las solicitudes, aquéllas que cumplan todos los requisitos se abonarán en un único pago antes de que finalice el año, abonándose el 100 % de la correspondiente subvención o, en caso de que no hubiera suficiente crédito para alcanzar dicho importe, la cuantía que resulte prorrateando la cantidad restante.

f) Para euskaldunizar las actividades de las empresas de más de diez trabajadores del programa Baietz gurean!:

El abono se realizará de la forma que figure en el convenio firmado con el Ayuntamiento.

*12. Disposición final. Primera.*

*Primero.* Sin perjuicio de la obligación de aprobar las correspondientes convocatorias anuales, las presentes bases específicas seguirán en vigor en tanto en cuanto no se procede a su modificación por el órgano competente.

*Segundo.* Los importes de las subvenciones que figuran en esta norma se revisarán anualmente, de conformidad con las cantidades aprobadas en los presupuestos municipales.

*Tercero.* La aplicación de esta norma está supeditada a la existencia en cada ejercicio de la partida presupuestaria que contemple el crédito necesario.

*Cuarto.* En todo lo no previsto en esta norma de carácter general será de aplicación supletoria lo dispuesto en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en el reglamento que desarrolla dicha ley, así como lo establecido en la normativa estatal de régimen local y en las normativas del propio Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

*Quinto.* La presente Norma recoge disposiciones aprobadas por el Ayuntamiento y/o por Administraciones Públicas en el ejercicio de sus competencias y que resultan de aplicación directa y obligatoria. Por tanto, las modificaciones normativas

ESKUa2fd3538-4dd5-4ff5-8d31-b41501e43175
EK\CV GAO-I-2018-02010

onesten diren arau-aldaketak automatikoki jasoko dira, eta berariaz onesteko erabakia hartu beharrik gabe eguneratuko dira Ordenantza honetan.

*13. Xedapen indargabetzailea.*

Indargabetuta geratzen dira oinarri honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo aurka doazen udaleko arau eta xedapen guztiak.

que se aprueben sobre dichos aspectos serán recogidas automáticamente, actualizando esta Ordenanza sin necesidad de adoptar acuerdo aprobatorio específico.

*13. Disposición derogatoria.*

Quedan derogadas todas las normas y disposiciones municipales en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en la presente base.

EK\CV GAO-I-2018-02010



EKS | CSV: ESKUa2fd3538-4dd5-4ff5-8d31-b41501e43175
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08310*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08310*